

JUANTXO-TXIKIREKIN GOGOR ETA BIGUN (20)

Azia lez umea be egunero aldatzen doan iakia dogu. Alda-bear ori berarekin daroa jaiotzetik. Eta, ori olan ba da, berarekin darabilgun jokabidea be alda bearrezkoa da apika-apika, adiña aldatzen doan neurrian.

Ejenploa ona da eta Juantxo-txiki ezitzeko biderik onena; alan be, bera aundiagotzen doan neurrian, ejenploak indar gitxiago.

Edozelan be, Juantxo-txiki'k txikia dan artean, gurasoen indarrez balia bearco dau, bera indargabea izanik. Indar maitekor orren bear...

Zeure buruari indar egin bearco dautsazu, umetxoa ondo eziko ba'dozu. Bere eziketean ez bigunkeririk erabili. Zuk indartsu jokatzea konbeni jako. Indartsu eta leun. Gogor barrutik eta bigun kanpotik. Giza-soiña bera be azaletik giar biguñak daukaz eta koipeak; barrutik, ordea, azur gogorak eta orrelan, biguntasunik galdu barik, gogortasuna ba'dau zutunik egon aal izateko.

Bigunkeriz ba'zabiitz, zugan dauen ustea galduko dau Juantxo-txikik. Beste aldetik, barriz, gogorkeri utsez ez dozu askorik lortuko. Biak bearco dozuz alkaturik, umetxoa ondo eziko ba'dozu: biguna eta sendoa. Orrelan jokatu aal izateko, zeure buruaren jabe izan bearco dozu eta jabetasun ori Juantxo-txikiren aurrean agertu. Era orretara ikusten ba'zaitu, zure esanetara etorriko jatzu umetxoa. Ostantzean, naiko lan.

Obearen billa ibiltea gure barruko bearbizuna dogu; tarteka, ostera, obearen billa ibiltea onaren aurka jokatzea da: ohea billatu ez eta bitartean ona galdu. Ona aukeratzea zuur jokatzea da. Ohea ezin dogunean, onari makurtu geure gogo.

Onak bat baiño geiago diranean eta alkarrekin eroaten ez diranak, orduan aukera egin bearrezkoa da. Aukeratzeak galera bat dakar berarekin: aukeratzeko ez dogun ona galdu egiten jaku. Itsasora nai nuke lanean; baiña, legorreko eginbearra be maite dot. Lurra aukeratzean, itsasoa galdu dozu. Bat artzea bestea iztea da. Bat artu eta beste guztiak itzi.

Jainkoak bagiña, diran guztiak batean izango geunkez eta toki guztietan batera egongo giñake. Ez gara Jainko eta nai-ta-nai ez aukera egin bear bein baiño geiagotan.

Zeuk aukerak egin eta itzi bear dozuzanak, itzi. Bein aukera egin ezker, jarraitu aurrera, atzera begiratu barik. Aukerak egiten erakutsi Juantxo-Txikiri eta aukeratu ez ditunak galtzen be bai.

Olan eziten da gure gogo.

Arazo guztietan zagoz zu beti trankil Bururik galdu barik Juantxo-txikiren aurrean. Zeuk burua galtzen ba'dozu, zer egingo dau Juantxo-txikik...? Uskeri bategaitik ez gerrarik armatu berarekin. Ori baiño obe dozu BARDIN GERATZEA.